- Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, sakatu **(*)/A+)** ▶ **Bloq. tec.** Sarrerako deiei erantzuten segi dezakezu eta teklatua berriz blokeatu da berriro deia amaitu ondoren. Teklatua blokeatuta egongo da eskuz desblokeatu arte.

Teklatua eskuz desblokeatzeko

- Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, sakatu **(*)/A+)** ▶ **Desbloq.**

Hasierako pantaila

- 📶 Hautatu hasierako pantaila telefonoa pizten duzunean bistara dadin ➡ **57 Irudiak erabiltzea.**

Hasierako pantaila bat hautatzeko

- Deiak egiteko/jasotzeko moduan, hautatu **Menú ▶ Ajustes ▶ Pantalla** fitxa.
▶ **Pantalla de inicio** eta, ondoren, hautatu aukera bat.

Distira

Doitu pantailaren distira

Distira doitzeko

- Deiak egiteko/jasotzeko moduan, hautatu **Menú ▶ Ajustes ▶ Pantalla** fitxa ▶ **Brillo**.

Arazoak konpontzea

Zergatik ez du telefonoak funtzionatzen nik nahi dudan bezala?

Atal honetan, telefonoa erabiltzean sor daitezkeen arazo batzuk aipatzen dira. Horietako batzuk ebazteko, sare-operadoreari deitu beharko diozu, baina gehienak zeuk konpon ditzakezu.

Nolanahi ere, telefonoa konpontzeko zerbitzuan utzi behar baduzu, kontuan izan telefonoan gordeta dagoen informazioa gal dezakezula. Informazioaren kopia bat egin, telefonoa konpontzeko zerbitzura eraman baino lehen.

Laguntza gehiago nahi baduzu, sartu www.sonyericsson.com/support web orrian.

Memoriaren edukierarekin arazoak ditut edo telefonoa mantso dabil

Kausa posiblea: Telefonoaren memoria beteta dago edo haren edukia ez dago ongi antolatuta.

Irtenbidea: Berrabiarazi telefonoa egunero, memoria libre uzteko eta haren edukiera areagotzeko.

Restabl. maestro. gauzatzeko aukera ere baduzu. Datu pertsonal batzuk edo egindako doikuntzak batzuk galdu egin daitezke ➡ *95 Berrabiarazte orokorra.*

Telefonoa kargatzen jartzen dudanean bateriaren ikonoa ez da bistaratzen

Kausa posiblea: Bateria hutsik dago edo ez da erabili aspaldian.

Irtenbidea: Bateriaren ikonoa pantailan agertu arte, baliteke 30 minutu igarotzea.

Menuko aukera batzuk grisez daude

Kausa posiblea: Zerbitzuren bat aktibatu gabe dago edo zure harpidetzan ez da funtzio hori sartzen.

Irtenbidea: Jar zaituz harremanetan zure sare-operadorearekin.

Kausa posiblea: Copyright bidez babestutako gairik, irudirik edo soinurik bidali ezin daitekeenez, baliteke bidaltzeko menua beti erabilgarri ez egotea.

Ez dut ulertzen menuko hizkuntza

Kausa posiblea: Telefonoan ez da hizkuntza zuzena hautatu.

Irtenbidea: Aldatu hizkuntza ➡ *18 Telefonoaren hizkuntza.*

Ezin dut telefonoa piztu

Kausa posiblea: Bateria deskargatuta dago.

Irtenbidea: Kargatu bateria ➡ *6 Bateria kargatzeko.*

Irtenbidea: Piztu telefonoa kargagailua konektatuta dagoela. Telefonoa abiarazten bada, berrabiarazi kargagailua konektatu gabe.

Ezin dut telefonoa kargatu edo bateriaren ahalmena baxua da

Kausa posiblea: Kargagailua ez dago behar bezala konektatuta telefonora.

Irtenbidea: Ziurtatu kargagailuaren konektorea behar bezala akoplatuta dagoela ➡ *6 Bateria kargatzeko.*

Kausa posiblea: Bateriaren konexioa ez da zuzena.

Irtenbidea: Kendu bateria eta garbitu konektoreak. Alkoholarekin bustitako eskuila leun bat, zapi bat edo kotoi-txotx bat erabil dezakezu. Ziurtatu bateria erabat lehortuta dagoela berriro jarri aurretik.

Egiaztatu telefonoaren bateriaren konektoreak ez daudela hondatuta.

Kausa posiblea: Bateria hondatuta dago eta berria jarri behar duzu.

Irtenbidea: Probatu telefono-modelo bereko beste bateria eta kargagailu batekin edo jarri harremanetan hornitzailearekin, bateria eta kargagailua behar bezala dabilzala egiazta dezan.

Telefonoa bakarrik itzaltzen da

Kausa posiblea: konturatu gabe ① botoia sakatu da.

Irtenbidea: aktibatu teklak automatikoki blokeatzeko aukera edo blokeatu teklatura eskuz ➡ **91 Teklatua blokeatzea.**

Kausa posiblea: bateriaren konexioa ez da zuzena.

Irtenbidea: ziurtatu bateria behar bezala sartuta dagoela ➡ **6 Bateria sartzeko.**

Ezin ditut telefonoko testu-mezuak edo SMSak erabili

Kausa posiblea: Doikuntza batzuk falta dira edo ez dira zuzenak.

Irtenbidea: Jarri harremanetan sare-operadorearekin, SMS zerbitzuen zentroko doikuntzak zein diren jakiteko, 40 Testu-mezuak (SMS).

Ezin ditut telefonoko irudi-mezuak edo MMSak erabili

Kausa posiblea: Zure harpidetzan ez da sartzen datuen edukiera.

Irtenbidea: Jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin.

Kausa posiblea: Doikuntza batzuk falta dira edo ez dira zuzenak.

Irtenbidea: ➡ **7 Telefonoaren laguntza** edo joan www.sonyericsson.com/support gunera, hautatu zure eskualdea eta herrialdea eta hautatu Telefonoaren konfigurazioa.

Ondoren, hautatu telefonoaren modeloa, sakatu Más información esteka, Mensajes con fotos (MMS) atalean, eta segi jarraibideei ➡ **71 Doikuntzak.**

Ezin dut Internet erabili

Kausa posiblea: Zure harpidetzan ez da sartzen datuen edukiera.

Irtenbidea: Jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin.

Kausa posiblea: Interneteko doikuntza batzuk falta dira edo ez dira zuzenak.

Irtenbidea: ➔ **7 Telefonoaren laguntza** edo joan www.sonyericsson.com/support gunera, hautatu zure eskualdea eta herrialdea eta hautatu Telefonoaren konfigurazioa.

Ondoren, hautatu telefonoaren modeloa, sakatu Más información esteka, Internet móvil (WAP) atalean, eta segi jarraibideei ➔ **71 Doikuntzak**.

Beste erabiltzaile batzuek ez dute telefonoa detektatzen haririk gabeko Bluetooth teknologiaren bidez

Kausa posiblea: Ez duzu Bluetooth funtzioa aktibatu.

Irtenbidea: Egiaztatu Bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela eta telefonoa bistartzeko aukera hautatuta dagoela ➔ **79 Elementu bat jasotzeko**.

Ezin ditut telefonoa eta ordenagailua sinkronizatu eta datuak transferitu, emandako USB kablea erabilia

Kausa posiblea: Kablea ez da detektatu eta instalatu behar bezala ordenagailuan, edo zure telefonoarekin emandako softwarea ez da behar bezala instalatu ordenagailuan.

Irtenbidea: Joan www.sonyericsson.com/support gunera eta hautatu zure eskualdea eta herrialdea eta telefonoaren modeloa. Ondoren, hautatu Conoce tu móvil - Empezar. *Sincronizar el teléfono con un ordenador* gidaliburuak instalazioari buruzko jarraibideak ditu, eta arazoak konpontzeko gida ere bai.

Berrabiarazte orokorra


Doikuntzetan eta sartutako edo aldatutako edukian egindako aldaketak ezabatu egingo dira.

Restabl. Ajustes hautatzen baduzu, telefonoaren doikuntzei egindako aldaketak ezabatuko dira.

Restablecer todo hautatzen baduzu, egindako doikuntzez gain, telefono-aurkibideko kontaktu guztiak, mezuak, datu pertsonalak eta deskargatutako, jasotako edo editatutako edukia ezabatuko dira.

Telefonoa berrabiarazteko

- 1 Deiak egiteko/jasotzeko moduan, hautatu **Menú ▶ Ajustes ▶ General** fitxa ▶ **Restabl. maestro**.
- 2 ▶ **Restabl. ajustes** edo ▶ **Restablecer todo**.
- 3 Jarraibideak bistaratzen direnean ▶ **Continuar**.

 **Restablecer todo** hautatzen baduzu, *deskargatu, jaso edo editatu dituzun doinuak eta irudiak ere ezabatuko dira.*

Errore-mezuak

Insertar tarjeta SIM

Kausa posiblea: ez dago SIM txartelik telefonoan edo, baldin badago, baliteke gaizki jarrita egotea.

Irtenbidea: sartu SIM txartel bat ➡ 6 SIM txartela sartzeko.

Kausa posiblea: SIM txartelerako konektoreak garbitu egin behar dira.

Irtenbidea: Atera SIM txartela eta garbitu. horrez gain, egiaztatu txartela ez dagoela hondatuta, telefonoaren konektoreekin kontaktua galarazteko moduan. Hala izanez gero, jarri harremanetan sare-
-operadorearekin, beste SIM txartel bat eman diezazun.

Insertar la tarjeta SIM correcta

Kausa posiblea: SIM txartel jakin batzuekin bakarrik funtzionatzeko dago definituta telefonoa.

Irtenbidea: egiaztatu telefonoaren operadorearen SIM txartela erabiltzen ari zarela.

PIN erróneo/PIN2 erróneo

Kausa posiblea: sartutako PINa edo PIN2a ez da zuzena.

Irtenbidea: sar ezazu zure PIN edo PIN2a ▶ **Sí ➡ 89 SIM txartela blokeatzea.**

PIN bloqueado/PIN2 bloqueado

Kausa posiblea: PIN edo PIN2 kodea gaizki sartu duzu hiru aldiz segidan.

Irtenbidea: desblokeatzeko, ➡ **89 SIM txartela blokeatzea.**

Los códigos no coinciden

Kausa posiblea: sartu dituzun bi kodeak ez datoz bat.

Irtenbidea: segurtasun-kode bat aldatu nahi baduzu (adibidez, zure PINa), kode berria berretsi behar duzu bigarren aldiz sartuta. ➡ **89 SIM txartela blokeatzea.**

No hay red

Kausa posiblea: telefonoa Hegazkineko moduan dago.

Irtenbidea: berrabiarazi telefonoa modu normalean ➡ **8 Hegazkineko moduaren menua.**

Kausa posiblea: telefonoa ez da irrati-seinalerik jasotzen ari edo jasotzen duena oso ahula da.

Irtenbidea: jarri harremanetan sare-operadorearekin eta ziurtatu sareak estaldura duela zu zauden tokian. Sare bat bilatzeko ► **Ajustes ► Conectividad fitxa ► Redes móviles ► Nueva búsqueda.**

Kausa posiblea: SIM txartela ez dabil behar bezala.

Irtenbidea: sar ezazu zure SIM txartela beste telefono batean. Mezu bera edo antzeko mezua jasotzen baduzu, jarri harremanetan sare-operadorearekin.

Kausa posiblea: telefonoa ez dabil behar bezala.

Irtenbidea: sar ezazu zure SIM txartela beste telefono batean. Ondo badabil, litekeena da telefonoa gaizki egotea. Jarri harremanetan gertuen duzun Sony Ericsson bezeroentzako arreta-zerbitzuarekin.

Sólo Mam. emerg.

Kausa posiblea: sare baten estalduraren barruan zaude, baina ez duzu baimenik erabiltzeko. Hala ere, larrialdietan, sare-operadore batzuek nazioarteko larrialdietarako zenbakira (112) deitzeko aukera ematen dute.

Irtenbidea: lekuz aldatu beharko duzu behar adina potentzia duen seinalea aurkitzeko. Jarri harremanetan sare-operadorearekin eta ziurtatu behar bezala harpidetuta zaudela ➡ **24 Larrialdi-deiak**

Bloq. del teléfono

Kausa posiblea: telefonoa blokeatuta dago.

Irtenbidea: telefonoa desblokeatzeko, ➡ **90 Telefonoa blokeatzea.**

Cód. bloqu. tfno:

Kausa posiblea: telefonoa blokeatzeko kodea behar da

Irtenbidea: sartu telefonoa blokeatzeko kodea. Telefonoak blokeatzeko kode bat du lehenetsita: 0000 ➡ **90 Telefonoa blokeatzea.**

PUK bloqueado. Contactar con el operador.

Kausa posiblea: desblokeatzeko kode pertsonal bat (PUKa) gaizki sartu duzu hamar aldiz segidan.

Irtenbidea: jar zaitetz harremanetan zure sare-operadorearekin.

Cargando... Batería no reconocida.

Kausa posiblea: erabiltzen ari zaren bateria ez da Sony Ericssonek onartutakoa.

Irtenbidea: ➔ 102 Bateria.

Informazio garrantzitsua

Sony Ericsson-en kontsumitzailearen web gunea, zerbitzua eta euskarria, seguru eta eraginkortasunez erabiltzeko aholkuak, azken erabiltzailearen lizentzia-kontratua, bermea, declaration of conformity.

Sony Ericssonen kontsumitzaileen web gunea.

www.sonyericsson.com/support web orrian laguntza-atala daukazu eskura. Modu erraz eta azkarrean eskuratuko dituzu hor laguntza eta aholkuak. Gune hartan, ordenagailurako softwarea eguneratuta eta produktuei ahalik eta etekin gehiena ateratzeko aholkuak dituzu.

Zerbitzua eta laguntza

Hemendik aurrera, hainbat abantaila izango duzu eta zerbitzu eskusibo batzuk izango dituzu, esate baterako:

- Tokian tokiko eta munduko edozein txokotako web gunetan laguntza jasotzeko.
- Bezeroentzako Arrera Zerbitzuen munduko sarea.
- Sony Ericssonen kolaboratzaileen sare zabala.
- Berme-aldia. Erabiltzailearen Eskuliburuan duzu bermearen baldintzei buruzko informazioa.

www.sonyericsson.com gunean, laguntzen sailean, zuk hautatutako hizkuntzan, azken tresnak eta euskarriari buruzko informazioa dituzu, baita softwarea eguneratuta, jakintzen oinarria, telefonoaren konfigurazioa eta behar duzun laguntza osagarria ere.

Operadorearen funtzio eta zerbitzu espezifikoei buruzko informazioa nahi baduzu, jarri harremanetan sare-operadorearekin. Gure bezeroentzako arreta-zerbitzuarekin ere jar zaitezke harremanetan. Erabili, zerrenda honetako bezeroentzako arreta-zentroen artean, gertuen duzun dei-zentroaren telefono-zenbakia. Zure herrialdea zerrendan ageri ez bada, jarri harremanetan tokiko hornitzailearekin. (Ondoren agertzen diren telefono-zenbakiak zuzenak dira dokumentu hau inprimatu den unean). www.sonyericsson.com gunean, beti daude eguneratuta).

Herrialdea

Telefonoa

Australia	1 -300 650 050
Argentina	800-333-7427
Austria	0810 200245
Belgika	02-7451611
Brasil	4001-0444
Kanada	1-866-766-9374
Erdialdeko Afrika	+27 112589023
Txile	123-0020-0656
Txina	4008100000
Kolonbia	18009122135
Kroazia	062 000 000
Txekiar Errepublika	844 550 055
Danimarka	33 31 28 28
Finlandia	09-299 2000
Frantzia	0 825 383 383
Alemania	0180 534 2020
Grezia	801-11-810-810
Hong Kong	8203 8863
Hungaria	+36 1 880 47 47
India	1800 11 1800

Produktua konpondu behar izanez gero, eraman ezazu erositako saltokira edo gure kolaboratzaile batengana. Ez bota erositako dokumentazio originala, berme-aldian erreklamazioak egiteko beharko duzu. Gure Bezeroentzako Arrera Zerbitzura egindako deiak estatuko horretako tarifen arabera kobratuko dira (tokiko zergak barne), baldin eta doako telefono-zenbakia ez bada.

Helbide elektronikoa

questions.AU@support.sonyericsson.com
questions.AR@support.sonyericsson.com
questions.AT@support.sonyericsson.com
questions.BE@support.sonyericsson.com
questions.BR@support.sonyericsson.com
questions.CA@support.sonyericsson.com
questions.CF@support.sonyericsson.com
questions.CL@support.sonyericsson.com
questions.CN@support.sonyericsson.com
questions.CO@support.sonyericsson.com
questions.HR@support.sonyericsson.com
questions.CZ@support.sonyericsson.com
questions.DK@support.sonyericsson.com
questions.FI@support.sonyericsson.com
questions.FR@support.sonyericsson.com
questions.DE@support.sonyericsson.com
questions.GR@support.sonyericsson.com
(telefono mugikorretik)
questions.HK@support.sonyericsson.com
questions.HU@support.sonyericsson.com
questions.IN@support.sonyericsson.com
(nazioarteko doako telefono-zenbakia)
39011111 (telefono mugikorretik)

Indonesia	021 -2701388	questions.ID@support.sonyericsson.com
Irlanda	1850 545 888	questions.IE@support.sonyericsson.com
Italia	06 48895206	questions.IT@support.sonyericsson.com
Lituanía	8 700 55030	questions.LT@support.sonyericsson.com
Malasia	1-800-889900	questions.MY@support.sonyericsson.com
Mexiko	01 800 000 4722	questions.MX@support.sonyericsson.com
Herbehereak	0900 899 8318	questions.NL@support.sonyericsson.com
Zeelanda Berria	0800-100150	questions.NZ@support.sonyericsson.com
Norvegia	815 00 840	questions.NO@support.sonyericsson.com
Pakistan	111 22 55 73	questions.PK@support.sonyericsson.com
	Karachitik kanpo: (92-21)111 22 55 73	
Filipinak	+ 63(02)7891860	questions.PH@support.sonyericsson.com
Polonia	0 (aurrezenbakia) 22 6916200	questions.PL@support.sonyericsson.com
Portugal	808 204 466	questions.PT@support.sonyericsson.com
Errumania	(+4021)401 0401	questions.RO@support.sonyericsson.com
Errusia	8(495) 787 0986	questions.RU@support.sonyericsson.com
Singapur	67440733	questions.SG@support.sonyericsson.com
Eslovakia	02-5443 6443	questions.SK@support.sonyericsson.com
Hego Afrika	0861 632222	questions.ZA@support.sonyericsson.com
Espainia	902 180 576	questions.ES@support.sonyericsson.com
Suedia	013-24 45 00	questions.SE@support.sonyericsson.com
Suitza	0848 824 040	questions.CH@support.sonyericsson.com
Taiwan	02-25625511	questions.TW@support.sonyericsson.com
Thailandia	02-2483030	questions.TH@support.sonyericsson.com
Turkia	0212 47 37 777	questions.TR@support.sonyericsson.com
Ukraina	(+380)44 590 1515	questions.UA@support.sonyericsson.com
Arabiar Emirerri Batuak	43 919880	questions.AE@support.sonyericsson.com
Erresuma Batua	08705 23 7237	questions.GB@support.sonyericsson.com
Estatu Batuak	1-866-766-9374	questions.US@support.sonyericsson.com
Venezuela	0-800-100-2250	questions.VE@support.sonyericsson.com

Seguru eta modu eraginkorren erabiltzeko jarraibideak

Irakurri informazio hau telefono mugikorra erabiltzen hasi baino lehen. Jarraibide hauen helburua zure segurtasuna da. Segi jarraibideei. Produktuak aipatutako baldintzetako bat bete behar badu edo funtzionamenduari buruzko zalantzarik baduzu, zerbitzu-zentro asoziatu eta baimendu batek egiazta dezala kargatu edo erabili aurretik. Hala egiten ez baduzu, gerta liteke produktua behar bezala ez ibiltzea edo zure osasunarentzako arriskutsua izatea.



Produktuak seguru erabiltzeko aholkuak (telefono mugikorra, batera, kargagailua eta gainerako osagarriak)

- Zaindu produktua eta hautsik gabeko leku garbian utzi.
- Kontuz! Lehertzeko arriskua dago, sutara botaz gero.
- Ez eduki telefonoa leku hezean, eta ezta likidoekin kontaktuan ere.
- Ez eduki telefonoa oso tenperatura altuan edo baxuan. Ez eduki batera 60 °C baino gehiagoko tenperaturan.
- Ez eduki telefonoa suaren edo piztutako erretzeko gaien ondoan.
- Ez utzi lurrera erortzen, ez jaurti eta ez saiatu tolestean.
- Ez pintatu telefonoa.
- Ez saiatu telefonoa aldatzen edo desmuntatzen. Sony Ericssoneko pertsonal eskudunak soilik egin ditzake konponketak.



- Ez erabili telefonoa ekipo medikoetatik gertu, mediku arduradunaren edo osasun-laguntzako langile baimenduen baimenik gabe.
- Ez erabili telefonoa hegazkinean edo hegazkinaren inguruan zaudenean, ez eta era honetako oharrak dituzten inguruetan ere: "itzali transmisioarek eta irratihargailuak".
- Ez erabili telefonoa zerbait lehertzeko arriskua dagoen lekuetan.
- Ez jarri telefonoa eta ez instalatu haririk gabeko ekiporik automobilaren airbagaren gainean.
- Kontuz: Pantaila pitzatuek edo hautsiek hertz zorrotzak edo printzak izan ditzakete, eta horiek, ukituz gero, zauriak eragin ditzakete.

HAURRAK

EZ UTZI HAUREN ESKUERAN. EZ UTZI HAURREI TELEFONO MUGIKORREKIN EDO HORIEN OSAGARRIEKIN JOLASTEN. HAI EK MIN HARTU DEZAKETE EDO BESTE BATZUEI MIN EGIN DIEZAIKETE, EDO EZUSTEAN TELEFONOA EDO HAREN OSAGARRIAK HONDA DITZAKETE. TELEFONOAK EDO HAREN OSAGARRIEK OSO PIEZA TXIKIAK DITUZTE, ETA PIEZA HORIEK ASKATU ETA DESKARGA ELEKTRIKOA ERAGIN DEZAKETE.



Hornidura elektrikoa (kargagailua)

Konektatu korrante alternoaren egokigailu elektrikoa produktuan seinalatutako korrante-hartuneetara soilik. Ziturta ezazu kablea ez dagoela tenkatua edo kalteren bat izateko arriskuan. Deskarga elektrikoaren arriskua murrizteko, deskonektatu unitatea korrante-hartunetik, unitatea garbitzen hasi baino lehen. Korrante alternoaren egokigailua ez da kanpoan edo leku hezetan erabili behar.

Ez inoiz aldatu kablea, ez eta larakoa ere. Larakoa hartunean sartzen ez bada, eskatu argiketari gaitu bati hartune egokia instalatzeko. Erabili Sony Ericssonek zure modeloerentzat diseinatutako jatorrizko kargagailuak soilik. Litekeena da beste kargagailu batzuen diseinua ez izatea errendimenduko eta segurtasuneko arau berberen arabera.

Bateria

Telefono mugikorra lehen aldiz erabili baino lehen, bateria guztiz kargatzeko gomendioa egiten da. Bateria berriek edo oraindik denbora gutxian erabilita daudenek errendimendu txikiagoa izan dezakete erabiltzen diren lehen aldietan. Bateria temperatura-tarte hauetan soilik kargatu behar da: + 5 °C eta + 45 °C. Erabili Sony Ericssonek zure modeloerentzat diseinatutako jatorrizko bateriak soilik. Bateria eta kargagailu desberdinak erabiltzea arriskutsua izan daiteke. Elkarriketa-denbora eta deiak jasotzeko/egiteko egoeraren iraupena telefono mugikorra erabiltzean dauden hainbat faktoreren arabera luza daitezke; adibidez, seinalearen indarra, funtzionatzeko uanean duen temperatura, aplikazioaren erabilera-eremuak, hautatutako funtzioak eta datu- edo ahots-transmisioak. Itzali telefono mugikorra bateria atera baino lehen. Ez sartu bateria ahoan. Elektrolitoak irenstea toxikoa da. Bateriaren kontaktu metalikoek ez dezatela beste objektu metaliko batzuekin kontakturik izan. Horrela jarritz gero, zirkuitulaburra gertatu eta bateria kaltetua gerta liteke. Ez erabili bateria hau dagokion funtziorako ez bestetarako.

Gailu mediko pertsonalak

Telefono mugikorrek gorputzean ezarritako taupada-markagailu batzuen eta beste gailu batzuen funtzionamenduari interferentziak eragin ditzake. Ez jarri telefonoa taupada-markagailuaren gainean, hau da bularraldeko poltsikoan. Telefonoa erabiltzean, jarri taupada-markagailuaren aurkako aldeko belarrian. Telefonoaren eta markagailuaren artean gutxienez 15 cm (6 hazbete) badaude, interferentzia-arriskua gutxitu egiten da.

Interferentziaren bat dagoen zantzurik izanez gero, itzali telefonoa berehala. Informazio gehiagorako, egin zazu kontsulta kardiologoarekin. Beste gailu medikoren bati buruzko argibideak behar izanez gero, galdetu fabrikatzaileari edo zure sendagileari.

Telefonoaren erabilera autoa gidatzen den bitartean

Kontsulta ezazu gidatzen den bitartean telefono mugikorraren erabilera mugatzen duen edo esku libreko gailua erabiltzea eskatzen duen tokiko lege edo araurik ba ote den. Sony Ericssonek diseinatutako esku libreko gailuak bakarrik erabili zure mugikorrean. Kontuan izan, ekipo elektronikoen sor daitezkeen interferentziak direla eta, auto-fabrikatzaile batzuek galarazi egiten dutela telefono mugikorrek erabiltzea marka horretako autoetan, instalazioak esku libreko gailua eta kanpo-antena bat ez baditu. Jar ezazu arreta osoa gidatzean eta ingurune egoerak hala eskatzen badu, irten zaitze errepidetik eta gero ezazu autoa deia egin edo deia erantzun baino lehen.

Larrialdi-deiak

Telefono mugikorrek irriti-seinaleen bidez eragiten dute; seinale horiek ez dute egoera guztietan konexioa ezar daitekeenik bermatzen. Hori horrela izanik, premiazko deietarako (adibidez, larrialdi medikoetarako) ez litzateke telefono mugikorra soilik izan behar. Telefonía mugikorreko sare batzuekin, sare-zerbitzu batzuekin edo telefonoaren funtzio batzuekin edo inguru batzuetan ezin da larrialdi-deirik egin. Zure inguruko zerbitzuen hornitzaileari galdetu.

Antena

Telefono honek antena bat du. Sony Ericssonek zehazki modelo honetarako aipatzen ez dituen antena-gailuak erabiliz gero, mugikorra hondatu egin daiteke, errendimendua jaitsi egin daiteke eta ezarritako SAR muga gaindi daitezke (ikus hurrengo puntua).

Erabilera eraginkorra

Heldu telefono mugikorrari beste edozein telefonori helduko zeniokeen bezalaxe. Telefonoa erabiltzean, ez estali goialdea, horrek eragin zuzena baitu deiaren kalitatean. Gainera, telefonoak behar baino energia gehiago kontsumatuko du horrela eta, hortaz hitz egiteko eta zain egoteko denbora murriztuko da.

Irrati-maiztasunaren (RF) energiarekiko esposizioa eta absortzio espezifikoa tasa (SAR)

Zure telefono mugikorra potentzia baxuko irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Piztuta dagoenean, irrati-maiztasunaren energia-maila baxuak (irrati-uhinak edo irrati-maiztasunaren eremuak ere deitua) igortzen ditu. Mundu osoko gobernuek nazioarteko segurtasun-arau orokorrak ezarri dituzte, erakunde zientifikoek –besteak beste, ICNIRP (International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection, Irradiazio ez-ionizatzaileen aurka babesteko nazioarteko batzordeak) eta IEEE (Institute of Electrical and Electronics Engineers Inc., Ingeniari elektrikoen eta elektronikoen institutuak)– azterketa zientifikoan aldizkako ebaluazio zehatza eginez garatutako arauak, hain zuzen ere. Arau horiek ezartzen dituzte populazioarentzat baimenduta dauden uhinen esposizio-mailak. Segurtasun-tarte handia hartzen dute kontuan, guztion segurtasuna bermatu ahal izateko, edozein dela ere gure adina edo osasun-

-egoera, eta neurketetan izandako gorabeherak erregiratzekeo. Absortzio espezifikoa tasa (SAR, Specific Absortion Rate) telefono mugikorra erabiltzean gorputzak xurgatzen duen irrati-maiztasunaren energia--kantitatearen neurri-unitatea da. SAR balioa laborategiko kondizioetan ziurtatzerik izan den energia-maila altuenaren arabera zehazten da, nahiz eta telefono mugikorraren SAR maila erreala, telefonoa funtzionatzen ari den bitartean, gehieneko balioaren azpitik egon ohi den nabarmen. Hori horrela da telefono mugikorrak sarera iristeko behar duen energia-kontsumoa ahalik eta txikiena izan dadin diseinatua dagoelako. Irrati-maiztasunaren energiaren eraginari dagozkion arauak adierazten dituzten balioen azpiko SAR aldeek ez dute berekin segurtasunaren aldaketarik. Telefono mugikorraren modeloetan SAR maila dagoekinez aldeak egon badaitezke ere, Sony Ericssonen telefono mugikor guztiak irrati-maiztasunaren energiaren eraginari dagozkion arauak betetzeko diseinatuta daude. AEBetan saltzen diren telefonoen kasuan, telefonoa publikoarentzat salgai jarri aurretik, esposizio segurutzat jotzeko gobernuek ezarritako eskakizunetan adierazitako mugak gainditzen ez dituela frogatu eta egiatzatu behar da FCCren aurrean (ingelesez, Federal Communications Commission; Komunikazio federalen batzordea). FCCk modelo bakoitzarentzat eskatzen dituen posizioetan eta lekuetan (adibidez, belarrarian edo gorputzarekin kontaktuan) egin dira proba guztiak. Telefonoa batetik bestera eramatean duen funtzionamenduari dagoekinez, frogatu da betetzen dituela IMen esposizioari buruzko FCCren zuzentarauak, entzungailua gutxienez gorputzetik 15 mm-ra jartzen denean, telefonotik gertu metalezko piezarik gabe izan, baldin eta telefonoa eramateko Sony Ericssonek diseinatutako osagarri originala erabiltzen bada.

Ez da bermatzen beste osagarriak erabiltzean IMen esposizioari buruzko FCCren zuzentarauak betetzen direnik.

Telefonoarekin emandako materialarekin batera etortzen da telefono honentzako SAR neurriei buruzko informazioa duen aparteko liburuxka. Informazio hori –baita irriti-maiztasunaren energiaren eraginari eta SARI buruzko informazio gehiago ere www.sonyericsson.com/health-en ere aurki daiteke.

Irtenbide erabilgarriak/Behar bereziak

AEBn saltzen diren telefonoen kasuan, TTY terminala Sony Ericssonen telefono mugikorrarekin erabil dezakezu (dagokion osagarriarekin). Behar bereziak dituzten partikularrentzako irtenbide erabilgarriak buruzko informazioa eskuratzeko, deitu Sony Ericssonen behar berezietarako zentrora. Hauxe da telefono-zenbakia: 877 878 1996 (TTY) edo 877 207 2056 (ahots-deia). Bestela, ikus gune hau: www.sonyericsson-snc.com.

Ekipo elektriko eta elektronikoak zaharrak botatzea



Ikur horrek adierazten du ekipo elektrikoak eta elektronikoak ez direla tratatu behar hondakin arruntekin. Ekipo elektrikoak eta elektronikoak birziklatzeko bilketa-puntuetan utzi behar da. Produktu hau behar den tokian botatzen dela bermatuta, produktuaren hondakinak behar bezala ez tratatzeagatik ingurumenean eta gizakien osasunean sor daitekeen eragin negatiboa saihesten lagunduko duzu. Materialak birziklatzeak baliabide naturalak konserbatzen laguntzen du. Produktu honen birziklatzeari buruzko informazio gehiago jasotzeko, jo ezazu zure herriko udal-bulegora, etxeko hondakinak tratatzeko inguruko zerbitzura edo produktua erosi zenuen saltokira.

Bateria botatzea



Kontsulta ezazu bateria-hondakinei buruzko tokiko arautegia edo eskutu informazioa Sony Ericssonen Bezeroentzako Arreta-zerbitzuan. Ez bota bateria udal-zabortegi batera. Erabili bateria-hondakinen edukiontzi bat, horrelakorik egonez gero.

Memoria-txartela

Produktuak memoria-txartelen irakurgailua du. Egiaztatu memoria-txartela bateragarria dela erosi edo erabili aurretik. Normalean, memoria-txartela fabrikari formateatzen dute. Memoria-txartela berriro formateatzeko, erabili gailu bateragarri bat. Memoria-txartela PCan formateatzean, ez erabili sistema operatiboak formateatzeko duen metodo estandarra. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus gailuaren funtzionamendu-jarraibideak edo jarri harremanetan bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin.

KONTUZ:

Zure gailuak egokigailua behar badu entzungailuan edo beste gailu batean sartzeko, ez sartu txartela zuzenean egokigailu horretan.

Memoria-txartela erabiltzeko neurriak

- Ez utzi memoria-txartela toki hezeetan.
- Ez ukitu terminalaren konexioak eskuarekin edo metalezko objektu batekin.
- Ez utzi lurrera erortzen eta ez eman kolperik memoria-txartelari.
- Ez desmuntatu edo aldatu memoria-txartela.
- Ez erabili eta ez gorde memoria-txartela toki heze edo korrosiboetan, edo bero handia egiten duen lekuetan (adibidez, udan autoan itxita, eguzkiak zuzenean jotzen duen tokietan edo berogailutik gertu).

- Ez sakatu edo tolestu gehiegi memoria-txartelaren egokigailuaren muturra.
- Ez dadila zikinkeriarik, hautsik edo beste materialik sartu memoria-txartelaren egokigailuaren konexio-atakan. Egiaztatu memoria-txartela ondo sartu dela.
- Sartu memoria-txartela egokigailuan ahalik eta gehien. Litekeena da memoria-txartela ondo ez ibiltzea, behar bezala sartuta ez badago.
- Datu garrantzitsuen segurtasun-kopia egitea aholkatzen dugu. Sony Ericsson ez da izango memoria-txartelean gordetako edukia galtzearen edo hondatzearen erantzule.
- formateatzen edo datuak irakurtzen edo idazten ari den bitartean gailua itzaltzen bada, txartela ateratzean, memoria-txartelean grabatutako datuak galdu edo kaltetu daitezke, edo gailua honda daiteke. Baita memoria-txartela elektrizitate estatikoa edo goi-tentsioko eremu-igorpene dagoen tokietan erabiltzen baduzu ere.

Datu pertsonalak babestea

Pribatasuna babesteko eta hirugarrenek zure datuak ez ikusteko, informazio pertsonal guztia ezabatu behar duzu telefonoa saldu edo bota aurretik. Datu pertsonalak ezabatzeke, egin berrabiarazte orokor bat eta atera memoria-txartela. TELEFONOKO INFORMAZIOA EZABATZEAK EZ DU BERMATZEN BESTE ERABILTZAILA BATEK BERRESKURATZEKO AUKERA EZ IZATEA. SONY ERICSSONEK EZ DU BERMATZEN GAILUAREN HURRENGO ERABILTZAILA BATEK INFORMAZIOA ESKURATU EZIN DUENIK, ETA EZ DU BERE GAIN HARTZEN ARDURARIK INFORMAZIO HORI EZAGUTARAZTEN BADA, EZTA BERRABIARAZTE OROKOR BATEN ONDOREN GERTATZEN BADA ERE. Zure informazioa ezagutarazteak kalte egingo badizu, zuk eduki gailua edo ziurtatu behin betiko deuseztatu dela.

Osagarriak

Sony Ericsson-ek Sony Ericsson-en jatorrizko osagarriak erabiltzea gomendatzen du, bere produktuek modu seguruan eta eraginkorrean funtziona dezaten. Beste marka batzuetako osagarriak erabiltzeak murriztu egin dezake errendimendua edo arriskutsua izan daiteke osasunerako.

ZARATEI BURUZKO ABISUA:

Beste marka batzuetako audio-osagarriak erabiltzen dituzunean, doitu kontu handiz soinuaren bolumena, gehiegizkoa izan ez dadin eta entzumena kalte ez dezan. Sony Ericsson-ek ez du telefono honen eta beste marka batzuetako osagarrien arteko bateragarritasun-probarik egin. Sony Ericsson-ek Sony Ericsson-en jatorrizko audio-osagarriak bakarrik erabiltzea gomendatzen du.

Azken erabiltzailearen lizentzia-hitzarmena

Haririk gabeko gailu honek ("gailu"), mugarik gabe gailu honekin emandako edozein euskarrirekin batera, Sony Ericsson Mobile Communications AB enpresaren ("Sony Ericsson"), haren afiliatuen eta hirugarren hornitzaileen eta lizentzia-emaileen softwareak ditu (hemendik aurrera, "Software"). Gailu honen erabiltzaile gisa, Sony Ericsson-ek lizentzia ez-esklusiboa, besterengarria eta esleigarria onartzen dizu, softwarea bakar-bakarrik instalatuta dagoen eta/edo harekin batera eman dizuten gailuan erabiltzeko. Hemen aipatzen dena ezin da hartu gailu honen erabiltzaileari egindako softwarearen salmentatzat. Ezin duzu erreproduzitu, aldatu, banatu, atzerantzko ingeniartzako teknikak erabili, deskonpilatu edo beste edozein aldaketa egin edo beste edozein metodo erabili softwarearen edo haren edozein osagarriren jatorri-kodea zein den jakiteko.

Zalantzarik ez izateko, software honen eskubideak eta obligazioak hirugarrenei transferi diezazkiekezu, baina softwarearekin eskuratutako gailuarekin batera, betiere hirugarrenak idatziz onartzen badu hitzarmen hau.

Lizentzia hau ematen zaizu gailuaren bizitza erabilgarrirako. Lizentzia hau eten dezakezu hirugarren bati idatziz softwarearekin eskuratutako gailuaren eskubide guztiak transferituta. Lizentziako zehaztapen eta baldintzak betetzen ez badira, eten egingo da berehala. Sony Ericsson eta haren hirugarren hornitzaileak eta lizentzia-emaileak dira softwarearekin lotutako eskubide, jabetza eta interesen jabe bakarrak. Sony Ericssonek eta hirugarrenek, softwareak hirugarrenen materiala edo kodeak baditu, baimena dute zehaztapen hauen hirugarren onuradun gisa. Lizentzia hau Suediako legeen arabera egin da, eta haien araberrako balioa eta errendimendua du. Aurrekoa aplikatu beharko da, ahal den neurrian, kontsumitzaileen legezko eskubideek horretarako aukera ematen dutenean.

Berne mugatua

Sony Ericsson Mobile Communications AB, SE-221 88 Lund, Sweden, (Sony Ericsson) enpresak edo hari lotutako tokiko enpresak berne mugatua eskaintzen du bere telefono mugikorrerako eta telefonoarekin batera ematen den jatorrizko osagarrirako ('Produktu' esango diogu aurrerantzean). Produktua konpondu behar bada, eraman ezazu erositako saltokira edo jarri harremanetan Sony Ericssonen tokiko bezeroen arreta-zerbitzuarekin (estatuko tarifak aplika daitezke) edo sartu www.sonyericsson.com web orrian, informazio gehiago behar baduzu.

Gure bermea

Berne mugatu honen kondizioen arabera, Sony Ericssonek bermatzen du erabiltzaileak Produktu hau lehen aldiz erostean ez duela akatsik ez diseinuan, ez materialean, ez eta fabrikaziokorik ere. Berne mugatu honek bi (2) urteko iraupena du, telefono mugikorraren kasuan, eta urtebeteko (1) iraupena mugikorrarekin ematen diren jatorrizko osagarri guztien kasuan (bateria, kargagailua eta esku libreko ekipoa), produktua lehenbiziko aldiz erosten den datatik kontatzen hasita.

Gure konpromisoa

Berne-aldian Produktuak normal funtzionatzeari uzten badio –diseinu-akatsak, materialean edo eskulanarekin zerikusia duten akatsak dituelako–, banatzaile baimenduek edo Produktua erosi zen herrialdeko/jeskualdeko* Sony Ericssoni elkarturiko zerbitzu-zentroek konpondu egingo dute, edo komeni dela ikusten badute, Produktua ordezkatu egingo dute hemen ematen diren zehaztapen eta kondizioak kontuan hartuz.

Sony Ericssonek eta Sony Ericssoni elkarturiko zerbitzu-zentroek beretzat gordetzen dute tramitazio-komisioa kobratzeko eskubidea, itzulitako Produktu jakin bati ez dagokiola bermea jakinez gero, baldintza hauen arabera. Kontuan izan Sony Ericsson-en Produktu bat konpontzen edo ordezkatzen denean galdu egin daitezkeela doikuntza pertsonalak, deskargak edo bestelako informazioa. Gaur egun, litekeena da indarrean dauden legeek edo bestelako arau edo muga teknikoek Sony Ericssoni ez uztea deskargen segurtasun-kopiak egiten. Sony Ericssonek ez du bere gain hartzen inolako motatako informazioaren galeren gaineko ardurarik, eta ez du ordainketarik egingo galera horien truke. Zure Sony Ericsson Produktua konpontzera edo ordezkatzera bidali aurretik, Sony Ericsson Produktu horretan gordetako informazio guztiaren segurtasun-kopiak egin behar dituzu (adibidez, deskargena, egutegiarena edo kontaktuen).

Baldintzak

- 1 Berme mugatuak balioa izan dezan, erosleak konpondua edo ordezkaturia izan dadin entregatzen duen Produktuarekin batera, Produktu horrentzat, Sony Ericssonek baimendutako saltzaile batek egindako jatorrizko ordainagiria aurkeztu behar du, erosketa-data eta serie-zenbakia** dituen ordainagiria, hain zuzen ere. Sony Ericssonek beretzat gordetzen du berme-zerbitzua ematera ukatzeko eskubidea, aipatu informazio hori ordainagirian ez dagoenean edo Produktua erositako izan eta gero aldatua izan denean.
- 2 Sony Ericssonek Produktua konpondu edo ordezkatzeko badu, konpondu edo ordezkatu den Produktuak jatorrizko bermeari geratzen zaion denboran izango du bermea edo konponketa-egunetik kontatzen hasita lauogeita hamar (90) egun, jatorrizko bermeari geratzen zaion denbora laburragoa izango balitz. Produktua konpontzeak edo ordezkatzek lehen konpondutako unitate funtzionalki balioak erabiltzea ekar dezake. Produktuari kendu zaizkion pieza kaltetuak Sony Ericssonon jabetza izatera pasatuko dira.
- 3 Berme honen barruan ez dira sartuko produktuaren ohiko erabilerak eragindako narriadura eta akatsak edo produktua gaizki erabiltzeak eragindakoak, ohiko erabileratzat hartzen ez den beste edozein erabilera barne, hau da, produktua erabiltzeko eta mantentzeko Sony Ericssonon jarraibideak betetzen ez dituen erabilerarik. Berme honen barruan ez dira sartzen ez softwarearen edo hardwarearen istripuei, doitzeei edo aldaketeei, eta hondamen naturalei zor zaizkien akatsak, ez eta likidoekin kontaktua izatetik datozenak ere. Berriz karga daitekeen bateriaren behin eta berriz karga daiteke. Hala ere, azkenerako gastatu egingo da, baina horrek ez du esan nahi akatsik duenik, erabilerarengatik eta desgastearengatik da. Elkarrizketa-

-denbora edo deiak egiteko/jasotzeko moduaren denbora askoz ere laburragoa denean, bateria aldatu egin beharko duzu. Sony Ericssonek gomendatzen dizu Sony Ericssonek onartutako bateriak eta kargagailuak erabiltzeko.

Litekeena da telefono guztietan distira eta kolorea berdin-berdinak ez izatea. Agian, puntu txiki distiratsuak edo ilunak ikus daitezke pantailan. Horiei pixel akastunak esaten zaie, eta banakako puntuak behar bezala ez dabiltzanean eta doitu ezin direnean bistaritzen dira. Bi pixel akastun onargarriak dira.

Litekeena da telefono batetik bestera aldaketa txikiak egotea kameraren irudian. Hori maiz gertatzen da, eta ez da kameraren modulu akastuntzat jotzen.

- 4 Produktu honek funtzionatzeko behar duen sistema zelularra Sony Ericssonon ardurapekoa ez den eramaile baten bidez hornitzen denez, Sony Ericssonek ez du izango aipatu sistemaren funtzionamenduaren, erabilgarritasunaren, zerbitzu edo estalduraren erantzukizunik.
- 5 Berme honen barruan ez dira sartzen instalazioek, aldaketek, konponketek edo Sony Ericssonon baimena ez duen edozein pertsonak produktua irekitzeko eragiten dituzten akatsak.
- 6 Berme honen barruan ez dira sartzen Sony Ericssonek produktuarentzat diseinatutako jatorrizko osagarriak ez diren gailu edo osagarri periferikoak erabiltzeko produktuari eragindako akatsak. Sony Ericssonek ez ditu berme esplizitu eta inplizituetan sartzen, birusek, troiatarrek, espioi-programek edo asmo gaiztoko softwareek produktuari edo osagarriari eragindako kalteak. Sony Ericssonek zinez gomendatzen dizu produktuan eta, hala egonez gero, hari konektatutako gainerako gailuetan software antibirus egokiak instalatzeko, eta maiz eguneratzeko aholkatzen dizu, gailua behar bezala babestuta egon dadin.

Baina seguru asko, software horrek ez du inoiz erabat babestuko zure produktua edo hari konektatutako gailuak; beraz, Sony Ericssonek ez du berme esplizituan eta inplizituan sartzen, antibirus programak huts eginez gero.

7 Produktuak dituen ziguiletako edozein manipulatzeko bermea baliorik gabe utziko du.

8 EZ DAGO IDATZITAKO BERME MUGATU HAU EZ DEN BESTELAKO BERMERIK, EZ IDATZIRIK EZ AHOZKORIK. BERME INPLIZITU GUZTIAK, MUGARIK GABE KOMERTZIALIZATZEA EDO ERABILERA JAKIN BATERAKO EGOKITZEA BARNE DIRELARIK, BERME MUGATU HONEN IRAUPENAREN MENPE DAUDE. EZ SONY ERICSSON ETA EZ HAREN LIZENTZIA-EMAILEEK EZ DIRA INOLAKO KASUTAN PRODUKTUAREN AKATSAK ERAGINDAKO KALTEEN –IRABAZIAK GALTZEA EDO GALERA KOMERTZIALAK BARNE– - ERANTZULE EGITEN, AIPATU KALTEEN KARGU EGITEARI Sony Ericsson LEGALKI UKO EGITERIK DUEN NEURRIAN. Herrialde batzuek debekatu egiten dute kalteak barne ez hartzea edo mugatzea edo berme inplizituen iraupena mugatzea. Hori dela eta, baliteke aurreko muga eta murrizketek ez eragitea.

Berme honek ez die eragiten estatuan aplikatu behar diren legeetan jasotako kontsumitzailearen eskubide legalei (23/2003 legean jasotzen denaren arabera), ezta salerosketa-kontratuan azaltzen diren hornitzaileen aurrean kontsumitzaileek dituzten eskubideei ere.

* BERMEAREN ESPARRU

GEOGRAFIKOA

Europako Ekonomia Esparruko kide den herrialde batean (European Economic Area, EEA), Suitzan edo Turkiar Errepublikan erosi baduzu produktua eta produktu hori EEAn edo Suitzan edo Turkiar Errepublikan saltzeko bada, produktuari dagozkion zerbitzuak jasoko ditu EEAn herrialdeetan, Suitzan edo Turkiar Errepublikan, behar dituzun zerbitzuan herrialde hartan dauden berme-baldintzen arabera, beti ere herrialde hartan Sony Ericssonen banatzaile baimendu batek produktu berdina saltzen badu. Zuk duzun produktua ulean zauden herrialdean saltzen den edo ez jakiteko, dei ezazu Sony Ericsson han duen bezeroentzako arreta-zerbitzura. Kontuan izan agian zerbitzu batzuk Produktua erosi duzun herrian bakarrik egion daitezkeela eskura, esate baterako, produktu horrek beste herri batzuetako bestelako barne- edo kanpo-konfigurazioa duelako. Halaber, SIM txartela blokeatuta duten modeloek ere arazoak izan ditzakete konpontzeko, telefonoa erosi ez den herrietan. ** Herrialdejeskualde batzuetan, informazio osagarria eskatzen da (adibidez, berme-txartel balioduna).

FCC Statement

This device complies with Part 15 of the FCC rules. Operation is subject to the following two conditions:

- (1) This device may not cause harmful interference, and
- (2) This device must accept any interference received, including interference that may cause undesired operation.



Adostasun-deklarazioa

We, Sony Ericsson Mobile Communications AB of Nya Vattentornet SE-221 88 Lund, Sweden declare under our sole responsibility that our product Sony Ericsson type AAD-3022091 -BV and in combination with our accessories, to which this declaration relates is in conformity with appropriate standards 3GPP TS 51.010-1, EN 300 328, EN 301908-1, EN 301908-2, EN 301 489-7, EN 301489-24, EN 301 489-17 and EN 60950, following the provisions of, Radio Equipment and Telecommunication Terminal Equipment Directive 99/5/EC with requirements covering EMC Directive 89/336/EEC, and Low Voltage Directive 73/23/EEC.
Lund, May 2007

CE 0682

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Shoji Nemoto', written over a horizontal line.

*Shoji Nemoto,
Head of Product Business Group GSM/UMTS*

R&TTE (99/5/EC) zuzentarauaren kondizioak betetzen ditugu.

Aurkibidea

A

adostasun-deklarazioa	109
ahots bidezko erantzuna	33
ahots-kontrola	31-33
ahots-mezuak	46
ahots-postontzia	31
alarmak	83
animazioa	57
aplikazioak	70
argazkien blog-a	56
automatikoki berriz deitu	23

B

bateria	
ezabatu	104
sartu eta jarri	6
bateria, erabilera eta mantentze-lana	102
berme mugatua	106
bermea	105
Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua	98
bidali	
bisita-txartelak	39
dei-tonuak eta doinuak	68
gaiak	59
hitzorduak eta zereginak	85
irudiak	57, 58

oharrak	86
bidalketaren egoera	43
bideo-erreproduzitzailea	60
bideoklipak	57
bisita-txartelak	39
blog-a	56
blokeatu	
SIM txartela	89
teklatura	91
telefonoa	90
Bluetooth-a	76
Bolumena	
dei-tonua	67
entzungailua	24
botoiak	10, 14

D

data	89
deia zain	34
deiak	
bi dei kudeatu	35
bideoa	25
egin eta jaso	8, 23
erantzun eta ez onartu	23
galdutakoak	24
grabazioa	69
larrialdia	24
murriztu	36

nazioartekoak	23
oharrak deian	38
onartu	36
zain utzi	34
deiak esbideratzea	34
deiak jasotzeko/egiteko modua....	7
dei-egilearen dei-tonu	
espezifikoak	29
deien iraupena	38
dei-tonuak	66-67
dei-zerrendak	30
Disc2Phone	61
distira, pantaila	92
doikuntzak	
Internet	71
Java®	74
pantailaren distira	92
posta elektronikoa	47
E	
eguneratze-zerbitzua	82
egutegia	84-85
erantzungailu-zerbitzua	31
erreproduzio-zerrendak	62
esku libreko funtzioa 11, 26, 31, 32	
Bluetooth-a	78
ezabatu	
bateria	104
F	
fitxategiak deskargatu	74
fitxategien kudeatzailea	20

G	
gaiak	59
grabagailua	69

H	
hasierako pantaila	57, 91
hitz magikoa	32
hitzorduak	84
hizkuntza	93
hondoa	57

I	
idazteko hizkuntzak	18
ikonoak	17
Internet	
blog-a	56
cookie-ak eta pasahitzak ..	74
doikuntzak	71
gogokoak	73
profilak	74
segurtasuna eta	
ziurtagiriak	75
irudiak	57-58
aldatu	59
pantaila-babesak	57
irudi-mezuak	43-46
irudi-tamaina	55

J	
Jarduera menua	9
jokoak	70

K	
kalkulagailua	87
kamera	54
konferentzia-deiak	35
konfigurazio-laguntzailea	6
kontuan hartu beharreko neurriak, kronometroa.....	87
L	
laguntza	7
letrak idaztea	18
M	
M2®	104
markaketa bizkorra	30
markaketa finkoa	37
memoria-kodea	87
memoriaren egoera	20
memoria-txartela	104
memoria-txartela	20, 104
menak	14
menuen deskribapen orokorra	12
menuetan batetik bestera mugitu	14
mezu luzeak.....	42
mezuak	
ahotsa.....	46
areari eta gelaxkari buruzko informazioa.....	53
bidalketaren egoera.....	43
irudia.....	43
posta elektronikoa.....	46
testua.....	40
mezuko zenbakietara deitu.....	41
mikrofonoa.....	23
Mis amigos	50
MusicDJ®	67
musika	
transferentzia	61
musika-errepuzitzailea	60
N	
nire zenbakiak.....	36
O	
ohar-bloka.....	38
oharrak.....	86
ordua	89
P	
pantaila-babesak.....	57
PhotoDJ®	59
PIN kodea	
aldatu	90
desblokeatu.....	5
PlayNow®	66
posta elektronikoa	46
profilak	88-89
PUKa	5, 89, 90

R	
RSS irakurgailua	75
S	
SAR	103
sareak.....	23
segurtasun-jarraibideak.....	101
seguru eta modu	
eraginkorrean erabili	101
SIM txartela	
blokeatu eta desblokeatu..	89
kontaktuaren zenbakiak.....	27
txarteletik/txartelera	
kopiatu	29
SIM txartela desblokeatu.....	90
sinkronizazioa	75-76
SMS, ikus Testu-mezuak	40
soinua, transferentzia	
eta helbidea.....	79
SOS Ikus Larrialdi-deiak	24
T	
T9®	
taldeak	39
teklak.....	10, 14
teklatura blokeatu.....	15, 91
telefonoa	
blokeatu	90
hizkuntza	18
muntatu.....	5
telefonoaren blokeoa aktibatu/	
desatibatu.....	91
Bluetooth-a	77
SIM txartela blokeoen	
aurka babestu	90
telefonoaren deskribapen	
orokorra	10
telefono-aurkibidea	
lehenetsitako telefono-	
-aurkibidea	26
sinkronizazioa.....	75
taldeak.....	39
telefono-aurkibidean	
kontaktuak sartu.....	27
tenporizadorea	87
testu-mezuak.....	40-43
Text Input.....	19
TrackID®.....	64
Transferentzia	
argazkiak	56
fitxategiak.....	80
musika	61
transferentzia-metodoa	
Bluetooth-a	76
USB.....	80
txantiloiak.....	43, 45
U	
urruneko agintea	79
USB kablea	80

V

VideoDJ®68

Z

zenbakia ezkutatu38

zerbitzua eta laguntza98

zereginak85-86

zooa

 kamera55

 web gunea72

zuzeneko sarbideak17

